## 2020. URTEKO AURREKONTUAREN PROIEKTUA

### MEMORIA

Gobernu Batzordeak aurkeztzen duen aurrekontu honetan Abokatuen Elkargoak **2019ko ekitaldian** erdietsi nahi dituen xedeetara bideratutako baliabide ekonomikoak jaso dira. Beti bezala, proposamen honen onarpena Batzar Nagusiari dagokio. Aurrekontua egiteko, kontabilitateko printzipio hauek kontuan hartu dira: zuhurtasuna, eraginkortasuna eta gastuari eustea. Elkargoak eskaintzen dituen zerbitzuak berdin-berdin mantenduko dira; halaber, **Elkargoko kuotak berdin-berdin mantenduko** dira. Horrenbestez, kuotek **–hamabigarren urtez–** handitu gabe edo txikituta jarraituko dute.

Badago desberdintasun txiki bat aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta, izan ere, Gobernu Batzak aurkeztutako aurrekontu hau aurrekoa baino pixka bat altuagoa da. Zehatz esanda, % **1,34** igo da. Izan ere, ekitaldi honetan, Bizkaiko Abokatzaren III. Kongresua egingo da eta horrek gastuak dakartza, baina baita sarrerak ere. Kongresua Elkargoaren egoitzan egingo da berriro, datorren urteko maiatzaren 14an eta 15ean.

Ekitaldi honetan, gure "Pedro Ibarreche" Praktika Juridikoko Eskolak, ohiko etengabeko prestakuntzaz gain, espezialisten hiru ikastaro berri egiteko aurrekontua ere sartu da, honako arlo hauetan: kontratazio publikoa, familia eta oinordetza, eta lan-arloko zuzenbidea eta auditoretza.

Ohi bezala, elkargoak duen kontabilitate analitikoa erabili da eta horrela elkargokideek argi eta garbi azter dezakete aurrekontua; hori dela eta, batetik, kostu edo gastu guneak eta kontzeptuak zehatz azaltzen dira, eta, bestetik, diru sarrerak. Horrenbestez, elkargokideok erraz eta arin dakuskigu datu guztiak eta horiek elkargoaren gastu eta diru-sarreretan duten benetako eragina.

Halaber, partida bakoitzaren alboan, 2019. urtean aurreikusitakoaren datua ipini da, kontzeptu guztiak aztertu eta horien garapena ikusi ahal izateko.

Lehenengo bi zutabeetan, ondoko zutabe guztien batuketa agertzen da, Elkargoaren gastu guneak edo atalak edo azterlan taldeak kontuan hartuta; lehenengo zutabea 2020ko aurrekontuaren proiektuari dagokio eta bigarrena, 2019ko aurrekontuari.

Txostenean, aurrekontuaren partida guztiak banan-banan jaso dira gastu- edo sarrera-zentro bakoitzaren arabera, eta nabarmentzeko modukoak diren zenbait alderdi jarraian aipatuko dira. Hala ere, Elkargoko diruzainak informazio eta azalpen zehatzak eskainiko ditu datorren **abendua**ren **19an, osteguna, 13,00etan**, Elkargoaren Ekitaldi Aretoan (Uribitarteko Arrapalak, 3, Bilbo) egingo den **Batzar Nagusian**.

**Aurrekontuko partida edo gastu gune batzuk zehatzago aipatu nahi ditugu**, kontzeptuaren aldetik edo kopuruaren aldetik garrantzitsuak direlako:

## **Zerbitzu orokorrak:**

Kontzeptu honetan gure elkargoaren egiturari eta ohiko funtzionamenduari dagozkion gastu eta sarrera guztiak bildu dira, hau da, jarduera zehatz bati ez dagozkionak. Hori dela eta, kopururik handiena duen partida da.

### **GASTUAK:**

Atal honetan Elkargoaren kudeaketa arruntaren gastuak, eraikinaren mantentzeari eta kontserbazioari dagozkion gastuak, elkargoko bulegoek eta administrazioak sortutakoak, baita Justizia Jauregietan ditugun egoitzetan sortutako gastuak, liburutegiarenak, telefonoak eta egoitzen arteko lotura mantentzeak sortutakoak, Wi-Fi edota web orrialdea mantentzearenak, informatika gastuak, elkargokide berrien zin-egiteak eragindakoak edo elkargoaren fotokopiagailuak eta inprimagailuak egoitza guztietan mantentzeak eragindako gastuak, etab.; baita enplegatuak ordaintzeko eta profesionalak kontratatzeko orduan sortzen diren gastuak; horiek guztiak ez daude jarduera zehatz bati lotuta: elkargoko zerbitzuen ohiko funtzionamenduak eragindakoak dira.

Gastu- eta sarrera-gune garrantzitsuena da, izan ere, Elkargoaren zerbitzu gehienak hemen jasotzen dira. Beti bezala, atal hau asko zaindu dugu, aurreikusitako diru-sarrerak aintzat hartuta; aldi berean, Elkargoak kideei eta gizarte osoari eskainitako zerbitzu horien kalitatea ez da gutxituko. Aurten % **0,24 handitu** da, iazko aurrekontuarekin konparatuta.

Ondoren, zerbitzu orokorren barruan aipamen berezia merezi duten gastuen azalpen laburra gehitu dugu, gure ustez oso garrantzitsuak dira eta:

#### **- Liburutegia:**

Elkargoaren Liburutegiari dagokion partida gastu garrantzitsua da, eta kopuru handia eskaini zaio, *100.000 €*, kalitatezko zerbitzua eskaintzeak garrantzi handia duelako, argitaletxeek argitaratzen dituzten erreminta guztiak, paperean zein euskarri informatikoan, elkargokide guztien eskura jartzen baititu. Horregatik liburutegia asko erabiltzen da, elkargokide askok egunero erabiltzen dute eta, beraz, zerbitzu nagusietakoa da. Hori dela eta, Liburutegia eguneratu eta mantentzeko bitarteko nahiko erabili behar ditugu.

Halaber, atal honetan sartuta daude kontratatuta ditugun datu-baseak; tresna horiek eskuragarri daude Barakaldon, Getxon, Durangon eta Gernikan, baita Bilboko Barroeta Aldamar eta Buenos Aires kaleetan dauden Justizia Jauregietako bulegoetan.

#### **- Enpresek egindako lanak:**

Zerbitzu orokorren atalean, partida honi *65.000 €* dagozkio, aurreko ekitaldiko aurrekontuan sartutako zenbatekoaren antzekoa. Kontuan hartu behar da partida horren konpentsazioa sarreraren atalean dagoela, jarduerak antolatzeari lotuta, izan ere, gure aurrekontuan “Eduardo Escribano” erakusketa-aretoan jarduerak antolatzeko beharrezko kopurua sartu da. Iazko urtera arte, BBK finantza-erakundeak ordaintzen zion muntaketa egin eta katalogoak argitaratzen zituen enpresari, baina 2017an finantza-

erakundeak kopuru hori Elkargoari eman zion hornitzaileak kontratatu zitzan; hori dela eta, gure urteko aurrekontuan agertu behar da.

#### **- Konponketak eta kontserbazioa:**

Zerbitzu orokorren atalean, partida honi 145.100 € dagozkio. Iaz (155.000 €) baino diru gutxiago. Elkargoaren egoitza mantentzetik nahitaez eratorritako gastu guztiak jaso dira, beti bezala: lokalen garbiketa, zainketa- eta detekzio-sistemak, konponketa arruntak, igogailuen eta beste makinen (galdarak, informatikako ekipoak, fotokopiagailuak, besteak beste) mantentze lanak etab.

#### **- Profesional Independenteen Zerbitzua:**

Zerbitzu orokorren atalean, partida honi 210.000 € dagozkio, iazkoa zenbatekoa baino zertxobait handiagoa.

Atal honetan, elkargokideei edo herritarrei zerbitzuak eskaintzeko Elkargoarekin lankidetzan aritzen diren profesionalen kontratazioa jaso da. Horretarako, elkargokide batzuek barruko eginkizunak egiten dituzte, besteak beste, hauen inguruan: minuta-espeditenteak arbitraian, kostuak kalkulatzeko zerbitzuak edota erantzukizun zibileko txostenak izapidetzea.

Era berean, Elkargoko kontuen ikuskaritzak eta Elkargoko lan-aholkularitzak eragindako gastuak jaso dira, eta kopuru jakin bat ezarri da Elkargoaren kudeaketarako sistema informatikoa, estraneta eta web orrialdea eguneratu eta mantentzeko. Eginkizun horiek egunean-egunean garrantzitsuagoak dira gure elkargoan. Elkargokideek erabiltzeko App bat sortzea aurreikusi da, elkargoak webgunearen bidez eskaintzen dituen zerbitzu guztiak (baita aztertzen ari diren beste zerbitzu berri batzuk ere) erabili ahal izateko. Eginkizun horiek guztiak gero eta garrantzitsuagoak dira gurea bezalako elkargo-erakunde batean.

#### **- Publizitatea:**

Publizitateari dagokion partidaren barruan, 59.000 €-ko gastua ezarri da –hau da, iaz baino gehiago: 57.000 €– erakundearen publizitatea egiten jarraitzeko.

Publizitate-kanpaina horrekin abokatutzak gizartean duen irudia hobetu nahi dugu, batez ere, gure zerbitzu profesionalak erabiltzera ohituta ez dauden bezero berrien sektoreei begira (enpresaburu txikiak, autonomoak, merkatariak, langileak, etab.). Horretarako, komunikabideak eta egokitzen jotzen diren gainerako tresnak erabiliko dira eta, beraz, aurrekontuan xede horretarako kopuru handi bat sartu behar da.

Diru hori, jakina, ez da nahikoa gure publizitatea etengabe eta hedabide guztietan egiteko. Baina kopuru horri esker aurreko urteetan guretzat onuragarri izan diren hedabideetan agertuko gara eta, publizitate-kanpaina irudimentsuen bidez, partikularrek prebentziozko abokatutza erabil dezaten bultzatu nahi da.

Aurten, aurreko urteetan bezala, hedabide batek luzatutako proposamenari ekingo diogu: astero publizitatea egingo da Bizkaian salmenta handia duen hedabide batean; proposamena egokia izan da, diru aldetik eutsi ahal izango diogu eta.

#### **- Elkartasun Funtsa:**

Aurreko urteetako Gizarte Ekintzari *Elkartasun Funtse* esaten zaio orain. 2019ko ekitaldiko aurrekontuan 6.000 €-ko kopurua aurreikusi dugu horretarako; beraz, antzeko kopurua.

Dena den, diru horrekin Elkargoak gure kide eta horien familiako behartsuenei lagunduko die, hartutako konpromisoen arabera.

Gobernu Batzordeak 2007. urtean banatzeko eta funtzionatzeko modu berria ezartzen duen arautegia onetsi ondoren, aipatu dugun dirutza ezarri da elkartasun funtserako 2019. urteko aurrekontuetan. Arautegia kontsultatzeko, gure web-orrialdera jo: [www.icasv-bilbao.com](http://www.icasv-bilbao.com).

#### **- Langileak:**

Beti bezala, gure aurrekontuaren partidarik garrantzitsuenak dira, gaur egun, 627.930 € guztira, hurrengo hauek ere barruan hartuta: Elkargoaren gastu-gune eta jarduera desberdinetara esleitzea ezinezkoak diren soldatak eta alokairuak; horrez gain, Gizarte Segurantzarekin dauden kasuan kasuko betebeharrak eta beste zama batzuk sartuta daude. Kopuru hori ekitaldirako aurreikusitako gastuen aurrekontu osoaren % 38,58 da. Aurreko urteetakoaren antzekoa, beraz.

Langileen gastua Elkargoko gastu guztien % 38,17 da, hau da, 1.335.990 €. Bertan, zerbitzu orokorretako gastuez gain, Praktika Juridikorako Eskolako, Txandako Ofizioaren eta Laguntza Juridikoaren zerbitzuetako eta Arbitraje Auzitegiko gastuak sartuta daude.

#### **- Amortizazioak:**

Aurreko urteetan higiezinetan, altzarietan, ekipoetan eta programazio informatikoan egindako inbertsioak kontabilitateari dagokionez babesteko, gastu arrunten barruan dagokion kopurua bideratzen da, ezarritako kontabilitate-irizpideen arabera.

Elkargoak modu sistematikoan amortizatzen du bere ibilgetu materiala metodo linealari jarraituz, aktiboen kostua gutxi gorabehera kalkulaturako bizitza erabilgarriaren urteen artean banatuz.

Elkargoak ezarrita duen kostuen analitikaren ondoretarako, ezarpen horiek modu proportzionalan egiten dira Elkargoaren instalazioei ematen zaien erabilera kontuan hartuta. Gastua banatzen da zerbitzu orokorren, praktika juridikoko eskolaren eta ofizioko txandaren artean. Xede horretarako, kalkuluen arabera, kontzeptu horiengatik kostu-zentro guztietan ezarritako kopurua 182.995 € izango da guztira.





Kopuru hori aurreko ekitaldietakoa baino zertxobait handiagoa da (176.290 € 2019an); izan ere, aurreko instalazioetarako ezarritako amortizazioan Elkargoaren egoitzako eraikinean igogailu berri bat eraikitzen gastatutakoa sartu da; ondorioz, beheko solairura, ekitaldi-aretoa eta liburutegira sartzea errazten da, atezaintza-eremutik. Obra horren berri emango da 2019ko gastuak eta diru-sarrerak gauzatzea azaltzen denean.

### **SARRERAK:**

Sarrera gehienak Zerbitzu orokorretan sartzen dira, Elkargoak ezarritako sistema analitikoan xede zehatz batera ez badoaz.

#### **- Aldizkako kuotak:**

Elkargoaren sarreren barruan, partidarik garrantzitsuena, beti bezala, kideok ordaintzen ditugun aldizkako kuotak dira. Txosten honen hasieran esan dugun moduan, Elkargoko kuotek **berdin** jarraituko dute. Horrenbestez, kuotek **–hamabigarren urtez–** handitu gabe edo txikituta jarraituko dute.

Aurrekontuetan kontzeptu horretarako ezarritako kopuruak **–1.550.875 €–** behera egin du (9.175 € gutxiago, aurreko ekitaldiarekin alderatuta), elkargokideen kopuruak apur bat behera egitea aurreikusi da eta.

Kuotak duela hamazortzi urte Batzar Nagusiak onetsitako **mailakatzearen** arabera antolatuta daude, hau da, 2 edo 5 urte baino aldi laburragoan sartu diren bertako jarduneko elkargokide egoiliarrei, hurrenez hurren, **% 50 eta % 25eko murrizketak** eginda.

**2020. urtean, Elkargoaren urteko kuotak** hauek izango dira:

#### **Jarduneko kide egoiliarrak**

- 5 urte baino gehiago elkargoan: 384,00 euro
- 2 urtetik 5 urtera elkargoan: 288,00 euro
- 2 urte baino gutxiago elkargoan: 192,00 euro
- 50 urte baino gehiago elkargoan: Kuotarik gabe

#### **Jarduneko kide ez egoiliarrak**

- Urteko kuota: 192,00 euro
- 50 urte baino gehiago elkargoan: Kuotarik gabe

#### **Jardunean ez daudenak**

- Urteko kuota: 192,00 euro
- 40 urte baino gehiago elkargoan: Kuotarik gabe

Kuotak **hiru hilerik behin kobratzen** jarraituko dugu, **aldiaren lehen egunean**. Zenbatekoa ezartzeko, kontuan hartuko dira elkargokidearen une horretako egoera, egoitza eta elkargoan daraman denbora.

### **- Elkargokide izateko kuotak:**

Sartze kuotei dagokienez, aurreko ekitaldiaren antzeko kopurua jarri dugu; aurtengo ekitaldiko aurrekontuan sarrera moduan 50.260 € aurreikusi ditugu, izan ere, gure aurreikuspenen arabera datorren urtean 95 alta berri izango ditugu eta bakoitzak 500 € ordaindu beharko ditu (elkargokide berri bakoitza izapidetzeak sortzen dituen gastuei aurre egiteko behar den diru kopurua, hain zuzen).

Halaber, 12 elkargokide ohi berriz ere kidegora sartuko dira; horiek 200 € ordaindu beharko dituzte (birsartze horiek lehen aldiz egiten diren altek baino administrazio-gastu txikiagoak dakartzatelako); halaber, Arabako edo Gipuzkoako elkargoetako kide izanik gurean alta ematen dutenak kontuan hartu dira; hori guztia Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren erabakiaren arabera egin da.

Ekitaldi honetan 6 habilitazio (norberaren gauzetarako) aurreikusi ditugu; bakoitzak, 60 €.

Elkargoaren kuotek, sartze kuotek eta norberaren gauzetarako habilitazioek 1.601.135 € ekarriko dituzte, hau da, Elkargoaren diru-sarrera guztien % 44,31.

## **Praktika Juridikoko Eskola:**

### **GASTUAK:**

Aspalditik, Praktika Juridikoko Eskola gastu gune nabarmena da; hori dela eta, arreta berezia eskainiko diogu. Dakizuenez, Praktika Juridikoko Eskolaren jardura ez dagokie bakarrik Eskolako ikasleei, gaur egun **Etengabeko Prestakuntza** deitzen dugun horretara hedatzen da eta; horren harira, elkargokide guztiei begira jardunaldiak eta birziklatze-ikastaroak antolatzen dira. Esan behar da lan hori elkargokideek asko estimatzen dutela: urte osoan pertsona askok ematen dute izena antolatzen diren mota desberdinetako jardueretan.

Ekitaldi honetarako gastu horren aurreikuspena 721.570 eurokoa da, iazkoa baino txikiagoa (740.970 eurokoa), beraz.

Kontuan hartu behar da azken urteetan ikasle gehiago izan direla, Lanbidean Sartzeko Lege berria indarrean jartzearen ondorioz, izan ere, Eskolatik pasatzea nahitaezkoa da. Egoera hori dela bide, Eskolaren aurrekontuetan egonkortasuna dugu.

Ekitaldi honetan ahalegin berezia egongo du "Pedro Ibarreche" Praktika Juridikoko Eskolak. Batetik, Abokatutzan Sartzeko Masterra dugu, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatearekin batera antolatzen dena. Bestetik, Euskal Herriko Unibertsitateak duen Abokatutzan Sartzeko Masterraren ikasleak daude, izan ere, horientzako praktikak antolatzen ditugu. Gainera, elkargokideentzako ikastaro eta mintegiak antolatzen dira geratu gabe.

Aurten, espezialisten hiru ikastaro berri egiteak ekarriko dituen gastuak eta diru-sarrerak jasotzen dira. Ikastaro horiek erabat berriak dira gure eskolarentzat: Kontratazio Publikoarena, Familia eta Oinordekotzena eta Lan Zuzenbideko eta Auditoretzako hirugarren bat.

### **SARRERAK:**

Antolatutako ikastaro eta jardunaldietara joango diren ikasleek (Abokatutzan Sartzeko Masterraren ikasleak eta zuzenbideko lizentziadunak) zein bertaratuek (legelariak gehienbat) urte osoan 930.500 € inguruko sarrerak eragingo dituztela aurreikusi da. Ikus daitekeenez, iaz baino gutxiago (1.007.300 €); hala ere, zenbateko handieneko partidetakoa bat izaten jarraitzen du eta, ondorioz, gure eskola Elkargoaren barruan osagai erabat garrantzitsua dugu.

Diru-sarreraren jaitsiera horrek badu azalpen bat: aurreko urteetan baino matrikulazio-kopuru txikiagoa dago 2019/2020 Masterraren edizioan eta jaitsiera hori Euskadiko lan-eskaintza publiko garrantzitsuaren ondorio dela uste dugu; ondorioz, oposizioak prestatzea erabaki duten graduatu asko daude. Jaitsiera hori EHUko masterrak ere izan du. Ziur gaude datozen urteetan aurreko edizioetako ikasle kopurua berreskuratuko dela.

### **Ofizioko Txanda eta Laguntza:**

#### **GASTUAK:**

Ezin dugu aipatu gabe utzi, urtero bezala, ofizioko txanda eta laguntza, bertan abokatutzaren eskuetan dagoen lan garrantzitsu bat islatzen da eta. Gainera, Elkargoko langileek ordu asko ematen dituzte arlo horretan eta Elkargoko aurrekontu osoaren zati handi bat ere gai horri dagokio.

Aurreko aurrekontuetan egin zen moduan, kopuru garrantzitsua eskaini zaie, 678.840 euro, Elkargoak zerbitzu horien —Doako Laguntza Juridikoa eta Ofizioko Txanda— azpiegiturari eusteko dituen gastuei aurre egiteko.

Partida honetan, zerbitzu hauen funtzionamenduak Elkargoari eragin ahal dizkion gastuak sartu dira: Ofizioko Txanda guztiak, Atxilotuari Laguntzeko modu desberdinak eta Orientazio Juridikorako Zerbitzua. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntza emateko Zerbitzuaren azpiegitura-gastuak gehitu dira —diru asko da baina Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza bat ematen du—, baita Atzerritarren Zerbitzu Bereziaren gastuak (Atzerritarrentzako Arreta Juridikoko Zerbitzua) —kasu honetan ere Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat jasotzen dugu —.

### **SARRERAK:**

Ikus daitekeenez, ekitaldi honetan eta aurrekoetan ezin izan da partida honetan zero saldoa jarri, Doako Justiziaren Dekretu berria indarrean izan arren.



Dekretu horretan azpiegitura gastuen igoera agertzen da. Hori dela eta, defizita txikituko da. Are gehiago, datorren ekitaldian defizit desagertzea espero dugu, eta, beraz, sarrera aurreikuspenekin aurre egingo zaie zerbitzu horiek mantentzeko beharrezkoak diren gastu guztiei.

Gastuari aurre egiteko diru-laguntzengatik 675.000 € inguru jasoko direla aurreikusi da, aurreko urteetan baino gehiago, eta kopuru hori aurrekontuan jaso da.

### **Kultura Batzordea:**

Batzorde horren lana sendotu dela azpimarratu nahi dugu. Ekimen horrek ez du diru askorik (19.800 €) baina Elkargoari bizitasuna emanez jarraitzea espero dugu; horretarako, guri eta gizarte osoari zabalduetako ekitaldiak antolatzen jarraituko dute, Abokatuen Elkargoko eraikina eta gizataldea bera Bizkaiko gizarteari hurbilduz. Urtean zehar asko eta asko dira antolatutako ekitaldiak, denak kalitate handikoak eta bertaratutakoek gustukoak: musika kontzertuak, erakusketak, etab. Azkenik, esan behar da Kultura Batzordeak Elkargoaren aldizkarian atal finko bat duela.

### **Hitzaldiak eta Ikastaroak:**

Memoria honen sarreran aipatu dugun moduan, ekitaldi honetan Bizkaiko Abokatutzaren III. Kongresua egitea aurreikusten da. Kongresua elkargoaren egoitzan egingo da, 2020ko maiatzaren 14an eta 15ean. Horregatik, partida honetan, kontratatzen diren hizlarien eta profesionalen gastuak jasotzen dira, baita horrelako gertaera batek ekarri ohi dituen zerbitzu guztietatik eratorritakoak ere.

Bertaratutakoek izen-emateen sarrerak ere jasotzen dira, baita enpresa edo erakunde babesleenak ere.

### **Informazio agerkaria:**

Informazio Agerkaria izena hartzen du Elkargoko aldizkariak aspalditik. Urtean 10 ale ateratzen dira. Elkargoko kideen bulegoetara eta eremu juridikoarekin lotutako hainbat erakundetara heltzen da. Ekitaldi honetan, aurrekontua aurreko ekitaldiko baino txikiagoa da (111.000 €); izan ere, elkargokideei aukera emango zaie beren bulegoetan aleak jasotzen jarraitu nahi duten edo bide telematikoen bidez soilik jaso nahi dituzten aukeratzeko; horrela, une honetan argitaratzen diren 5.500 aleek dakartzaten gastuak (paperezko aleak inprimatzeko, manipulatzeko eta bidaltzeko gastuak, hain zuzen) murriztuko dira.

Azken urteotan publizitatetik eratorritako sarrerak nabarmen txikitu dira. Krisialdia dela eta, iragarkiak gutxitu dira; horrenbestez, finantziarioa jaitsi da. Hala ere, aurrekontuetan 60.000 € agertzen dira sarrera gisa.

### **Argitalpenak:**

Paperezko lan juridikoen doako banaketak izugarritzko arrakasta izaten du gure artean. Guztiontzako interesgarriak diren lan horiek Elkargoak merke eskuratu eta



banatu ditu. Hori dela eta, datorren urteari begira partida maila altu horretan mantentzea erabaki du Gobernu Batzarrak: *41.000 €* izango dira, halako lanak erosi edo argitaratzeko.

Halaber, Vlex datu basea —jurisprudentzia, legeria, doktrina eta formularioak batzen dituen— kontratatzea aurreikusita dago; doan eskaintzen zaie elkargokideei elkargoaren estranetaren bidez eta erabilera handia du.

### **Ekimen korporatiboak:**

Elkargoaren inguruko ekimenak izeneko partida honetan, *115.250 €*-ko aurrekontuarekin; bertan Elkargoak antolatutako jarduerak burutzea sartzten da, batez ere urteko bazkaria, eskelak eta hildako lankideen omenezko urteko meza. Bazkari horren bidez, Elkargoan 40 urtetik gora daramaten legelariak omentzen dira.

Askotariko zerbitzuen barruan sartzten dira Elkargotik abokatutzarekin lotutako erakundeei edo Gobernu Batzordearen ustez gure partaidetza merezi duten erakundeei egindako ekarpena.

Partida honetako sarrera da urteko bazkarira doazenek ordainduko duten dirukopurua, gutxi gorabehera *25.000 €*.

### **Arbitraje Gortea:**

Duela urte batzuk ezarri zen zerbitzu orokorretatik independentea den jarduera moduan. Modu horretan, horri egozten zaizkio jardueratik zuzenean eratorritako gastuak eta sarrerak.

Ekitaldi honetan, jarduera horretarako *47.160 €*-ko aurrekontua ezarri da, eta kopuru bera Elkargorako sarrera moduan, emango diren laudoetan ziurrenik parte hartuko duten auzilariak Elkargoari kopuru hori ordainduko diote eta.

### **Nazioarteko lankidetzak eta Garapenerako lankidetzak:**

Partida honetan sartzten dira Elkargoak Hirugarren Munduko edo garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzera bideratzen duen kopurua, Elkargoko Nazioarteko Lankidetzako Batzordearen bidez, gure Batzar Nagusiak ezarri eta bere gain hartutako % 1aren arabera. Aurtengo zenbatekoa *34.600 €* izango da.

Partida hori aurreko ekitaldikoa baino pixka bat handiagoa da, aurrekontua mantendu egin baita.

### **Ikerlan taldeak:**



Aurrekontuan beste batzordeen eta azterlan taldeen ohiko partidak bere horretan mantendu egin dira. Talde horiek guztiek Elkargoari bizitasuna ematen diote eta elkargokideei aukera ematen die hainbat eta hainbat ekimenetan parte hartzeko. Taldeak eta horien gaiak honako hauek dira: Familia zuzenbidea, Foru zuzenbidea, Teknologia berriak, Bitartekaritza, Ingurumena, Kontsumo zuzenbidea, Lan zuzenbidea, Nagusien zuzenbidea, Jabetza Intelektualari buruzko zuzenbidea eta Lankidetzazuzenbidea; orain dela gutxi, animalien zuzenbideari buruzko taldea sortu da.

Kontsumo zuzenbideari buruzko taldeak ez du ezer gastatu azken ekitaldian eta, ondorioz, ez dugu diru aurreikuspenik egin talde horren inguruan.

Memoria honekin batera, Elkargoak urte osoan kobratuko dituen kuoten azalpen-taula gehitu da, eta balizko inguruabar guztiak zehaztu dira, elkargokide bakoitzaren egoeraren arabera; baita Elkargoko antzintasunaren arabera egon daitezkeen salbuespenak ere, jarduleak eta ez-jarduleak, egoiliarrak eta ez direnak bereiziz.

Aipatutako arrazoi guztiengatik, aurrekontuaren zenbateko osoak aurreko urtekoarekin alderatuta % **1,34ko igoera** izan du.

## **Hiruhileko ordainagiriak**

Gogoratu nahi dizuegu Elkargoaren hiru hilean behingo ordainagiritan, kuotez gain, beste kontzeptu batzuk agertzen direla. Kontzeptu horiek ez dira elkargoko aurrekontuaren atalak baina kudeatu behar ditugu; zehatz esanda, hauek dira:

- **Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren kuotak** (2019ko zenbatekoak mantentzen dira). Kobratzerakoan 2029ko urtarrilean lean dagoen egoera kontuan hartuko da.

- Jarduneko kide egoiliarrak, jardunean ez dauden egoiliarrak eta egoitza-elkargorik gabeko kideak: 39,13 €.

Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak **salbuespen** sistema berezia du:

- Jarduneko kide egoiliarrak, 72 urte baino gehiago dutenak eta 50 urte baino gehiago kide egin zirenetik

- Jardunean ez dauden egoiliarrak, 72 urte baino gehiago dutenak eta 45 urte baino gehiago kide egin zirenetik

- **Euskal Kontseiluaren kuotak**: 2019ko abenduaren 17an Kontseiluak aurtengo kuotetan igoerarik ez egitea erabaki du:

- Jarduneko kide egoiliarrak: 26,00 €

- Jardunean ez dauden egoiliarrak: 14,30 €



- **Erantzukizun Zibileko eta Istripuetako Asegurua:** Elkargoak jarduneko kide egoiliarrentzat kontratatzen du; iazko zenbatekoa mantentzen da: 239,18 €. Bigarren eta laugarren hiruhilekoko ordainagirietan agertzen da. Dakizuenez, Erantzukizun Zibileko Aseguruak 700.000 €-ko estaldura eskaintzen du eta 600 €-ko frankizia du. Posible da norberak estaldurak zabaltzea; halako kasuetan aipatutako frankizia desagertu egiten da. Horren izapidetzerako inprimakiak Elkargoaren webgunearen bidez lor daitezke, inprimakien atalean (<http://www.icasv-bilbao.com/colgacion.aspx>).

Bi aseguru hauek ere sartuta daude zenbateko horretan: bizi-asegurua eta istripuaren ondoriozko ezintasun iraunkorra (24.000 €) eta infartuagatik gertatutako heriotza (15.000 €)

Kontratatzeko aukera dago, halaber, printzipalaren zabaltze gisa, konkurtsoko administratzailearen eta sozietate profesionalen arriskuak.

- **LEI aseguru** (Lanbide Ezintasun Iraunkorraren ondoriozko prestazioa) borondatezkoa da jardunean dauden egoiliarrentzat; 2020an 198,20 € izango dira; lehengo eta hirugarren hiruhilekoko ordainagirietan agertzen da. Aseguru hori dela eta, 30 € eguneko jasotzen dira, 18 hilabetez, istripuagatik edo gaixotasunagatik bajaran egonez gero; 7 eguneko frankizia du.

Azkenik, zuen lankidetzak eskertu nahi dugu. Halaber, aurrekontu hau onesteko egingo den **Batzar Nagusira** —datorren **abenduaren 19an, eguerdiko ordu batean**, Elkargoaren ekitaldi aretoa— bertaratuko zaretela espero dugu.

Bilbon, 2019ko abenduaren 5ean  
**GOBERNU BATZARRA**